

Artearen inguruan

Azaldu behar dizuedan lana guretzat berria izan da; claustro osoak menperatzen ez genuen lan batean murgildu gara eta orain bukatu dugula gaitz dugun erronka handi bat izan da.

Esperientziaren relatoa azalduko dizuet eta batera ekintza desberdinen argazkiak ikusiko dituzue.

Hemen kontatu nahi dizuedana da ikasturte honetan egin dugun bi lan desberdinen laburpena. Pentsatzen dut zuetako batzuk parte hartu duzuela Gipuzkoan Estola txikitako mintegian, eta orduan jakingo duzue zertan ibili garen. Dena den, hemen saiatuko naiz gure bi lan horiek esplikatzen.

Nik Berrobiko eskolan lan egiten dut eta LH 4.5. eta 6. mailako tutorea naiz. Nire gelan hamar ikasle daude.

Urteak neraman Oteizari buruz lan bat egiteko nahian, Oteiza gustatzen zaidalako, eta gehiegi jakin gabe, iruditzen zitzaidan bere lanak aukera asko emango zidala ikasleekin lan desberdinak egiteko eta XX mendeko artearen zailtasunean aurrean ikasleek perspektiba berriak ulertzeko.

Horrela hasi nintzen Oteizari buruz informazioa jasotzen eta ikasleei kontatzen; Oteizaren museotik informazioa eta lana egiteko pista batzuk eman ziguten eta horretan hasi ginen. Ondoren eta buruak irekita joan ginen Oteizaren museora. Dakizuenetz, irakasleari gustatzen zaiguna aukera asko izaten ditu ikasleen gustukoa izateko, eta orduan aurretik egindako lan guztiari esker, Oteizaren museoaren bisita oso interesgarria iruditu zitzaigun.

Ondoren eta asteen behin dugun plastikako orduan zenbait tailer desberdinak egin ditugu:

Bolan tailerra

Klarionen tailerra

Porespanakin

Kartulinakin bolumenak

Plastilinakin

Kartoiakin kutxak

Bolumena, espazioa, edertasuna, adierazpena...kontzeptu horien inguruan ibili gara oso modu xumean baina asko disfrutatzen.

Pentsatzen nuen ere ikasturtea bukatu baino lehenago Oteizaren

biografia egin behar genuela, baina ez nuen denborarik hartzen horretarako.

Horrela ari ginela, aurten Gipuzkoan egin dugun Eskola Txikien mintegian Elena Laizek proposatu zigun artearen inguruan lana egitea, erakusketa bat egitea eta artisten biografiak idaztea. Miriamek ere pista asko eman zizkigun lan honi eusteko. Horrela eskola osoa animatu ginen zerbait egiteko. Egin behar genuen lehenengo lana zen " el recorte temático": aukeratu ze artista edo ze garaia edo ze margoen inguruan nahi genuen lan egin. Nire gelakoak eskulturen inguruan martxan zeudela eta, pentsatu genuen eutsi behar geniola Euskal Herriko Arte Garaikideari. Oso titulu potoloa zen eta guk oso gutxi genekien honi buruz. Informazioa biltzen hasi ginen. Lehenengo, gutxi gora behera bagenekien zeintzuk izan ziren XX mendeko Euskal artearen iraultzaileak eta horien zerrenda egin genuen. Oso zerrenda motza egiteko lain izan ginen. Informazio gehiago lortzeko nora jo? Dakitenengana: Artelekuko zuzendari ohia ezagutzen genuen eta horrek eman zizkigun oraingo artista inportanteenen berri, bere telefonoak, kontaktuan jartzeko. Martxan jarri ginen:

Interneten hasi ginen XX mendeko artisten biografiak lortzen. Arte liburuak handik eta hemendik bildu genituen. Eskolako pasilloak oraingo artisten obrekin bete genituen: interneten obrak aurkitu, inprimatu eta pasilloan jarri genituen. Ondoren ikasleek aukeratu zituzten ze obren bertsioak egin behar zituzten; lanean jarri ziren. Artista batzuekin kontaktuan jarri ginen. Baina oraindik ez genekien nola bideratu. Orduan, lortutako arte liburuaren artean batzuk katalogoak ziren; horiei begiratzuz pentsatu genuen egingo genuen erakusketari buruz katalogoa egingo genuela. Katalogoa nahiko obra irekia izan daiteke: sartzen dira artisten biografiak, baina baita obrari buruzko iritziak ere, edo idazleen histori txikiak. Titulua aukeratu genuen: Artearen inguruan. Eta horrela proposamen irekia gelditu zitzaigun. Lanean hasi ginen:

Oteiza, Chillida, Ruiz Balerdi, Remigio Mendiburu, Nagel... horien biografiak Interneten bidez eta arte liburuetan aurkitu genituen. Bikoteka testu desberdinak irakurri eta hortik biografia bat egin dute. Aurkitu ditugun testuen artean gaztelera nahiko izan dira eta itzulpen lana ere egin dugu.

Ameztoy, Arias, Dora Salazar, Jose Ramon Amondarain.. artista hauei edo bere familiei deitu diegu, galderak bidali dizkiegu eta beraiek erantzun dizkigute. Euren erantzunekin eta batzuetan beste testuekin biografia errazagoak egin dituzte.

Manu Muniategiandikoetxea eskolara etorri zen eta txikiek biografia egin dute eta koskorrek bisitaren kronika katalogorako.

Koldobika Jauregiren tailerrera joan ginen eta han ikasi genuena ere katalogoan azaldu dugu; Goeneagaren tailerra ikusi zutenek ere horrelako lana egin dute. Miren Gonzalezek erakutsi zigun bere erakusketa eta horren kronika azaltzen da ere gure katalogoan.

Bi hizkuntzak erabili ditugu orokorrean. Cristina Iglesiasen biografia ingelesez idatzi dugu.

Materiala biltzen ari ginela, beste galdera sortu zitzaigun: ze formatoa eman katalogoari. Askotan dena asmatu behar dugula iruditzen zaigu eta hor konfundituta gaude: besteek asmatutakoa aprobeztatu eta gureganatu behar dugu: artisten katalogoei begira egin genuen formatoa. Ondoren ikasleek lagunduta Publisherren sartzan joan ginen obra guztiak eta testu guztiak, antolatu genuen dena eta sarrera eta aurkibidea idatzi genuen eta inprimategira bidali genuen pdf moduan gordeta.

Erakusketa prestatu dugu katalogoa inprentatik jaso dugunerako.

Erakusketa herrira irekia egin dugu aste batean goizez ordu bat eta arratsaldean gurasoek eta ikasleek zainduta beste ordu bat, herriko jendeari aukera emateko.

Lan guzti hau eskola osoko inplikazioa behar izan du eta lortu du.

Irakasle guztiok buru belarri aritu gara eta hori asko nabaritu da emaitzan. Irakasleok ikasi dugu pilo bat; irakasleok ikasten ari garenean, ez dago zalantzarik ikasleek ikasiko dutenik. Artisten laguntza harrigarria izan da: guk eskatu, eurek eman eta gainera eskertu digute. Oso interesgarria izan da.

Lan honek ondorio interesgarri batzuk ditu eta hemen azaldu nahi dizkizuet:

- Ikasleei hasieratik esan genien zein zen gure asmoa, eta horretarako egin dute lana; zentzuzko lana izan da beraiantzat.
- Gai bati buruz beti daude eskolara etortzeko edo beste modutan laguntzeko prest dauden adituak.

- Guk ez badakigu ausartu behar dugu, ikastea izugarritzko erronka da eta lana interesgarriagoa egiten zaigu.
- Ikasleek ulertu dezakete artea erraz, ez daukatelako oraindik guk adina traba.
- Klaustro osoko lana izan da: denok elkarrekin, bakoitzak ahal zuena egiten, gozada bat izan da.